

## Lehen hitzak espazioan

### 19.1.- Entzun audioa eta aukeratu laburpen egokia pasarte bakoitzarentzat:

#### 1.- Komunaren arazoa konpontzeko...

- Tasiok, espazio-estaziotik ateratzeko, palanka bati eragiteko agindu dio Kevin.
- Eskisabel kapitainaren erabakiz, espazio-estaziotik atera eta palanka bati eragin behar diola esaten dio Tasiok Kevin.
- Ezinbestekoa da espazio-estaziotik palanka bat ateratzea.

#### 2.- Espazioan lehen hitzak esatea une historikoa izango denez ...

- Tasiok espazioan esango diren euskarazko lehen hitzak *Berría* egunkarira bidali nahi ditu.
- “Une historiko”rako Tasiok proposatzen dituen hitzak kutsu elizkoia dutela iruditzen zaio Kevin.
- Espazio-estaziotik irten baino lehen adostu dute bi astronautek Kevinek “Gora Euskadi” esan behar zuela.

#### 3.- Kevin espazio-estaziotik atera denean ...

- Ez zuen ezer ikusten; horregatik haserretu zaio Eskisabel.
- Euskadi Irratikoek salatu dute ezin zela ezer ikusi, dena ilun-ilun zegoela.
- Eskisabel kapitaina haserre dago, Kevinen hitzak guztiz desegokiak izan direlako.

### Binaka jarri eta konparatu emaitzak ikaskidearekin.

### 19.2.- “Une historikoan” honakoa bota du Kevinek:

*Joder, ez nuen hau espero, Tasio! Espazioa kilker baten uzkia baino ilunagoa da!*

Oso garrantzitsua izaten da une bakoitzean modu egokian hitz egitea. Testuingurua ez bada kontuan hartzen, gaizki-ulertzeak eta egoera deserosoak sortzen dira askotan.

### Talde txikian jarrita, komentatu puntu galdera hauek:

- Zergatik iruditzen zaizkio Kevin desegokiak Tasiok proposatzen dizkion esaldiak?
- Eta Eskisabeli Kevinek bota duena?
- Nola saiatu da Kevin hanka-sartzea konpontzen?
- Zuen ustez, zer esan behar zuen Kevinek egoera horretan?

19. atala: Taldean

19.3.- Binaka jarri eta erreparatu irudi hauei. Egokitasuna kontuan hartuz lotu bakoitza esaldi egokiarekin:



A



B



C



D



E



F

1. Ez duzu ezer egiten, artaburu hori! Zorriak baino alferragoa zara.
2. Horrelako lanetan ohituta nago, eta badut esperientzia ordenagailuekin.
3. Ez nator bat zurekin, izan ere, martxan jarri zenuen ekimenak huts egin du
4. Aizue zein inuzenteak zareten! ez zarete ezertaz konturatzen...
5. Ez nago ados zuen jarrerarekin. Lehengoan esandakoa ez duzue bete.
6. Hi, lanerako ordenagailu berriak ekarri behar zizkigutek!

Konparatu taldean erantzunak. Bat etorri zarete?

19.4.- Bikoteka aukeratu goiko egoera bat eta, lehenengo esaldiari jarraipena emanez, egin elkarrizketa ikaskidearekin.



19. atala: Taldean

## Transkripzioa (03:23)

T- Kapitainak deitu berri dik.

K- Eta?

T- Kazakhoek gure hondakin organiko sisteman utzitako arazoa...

K- Komuna esan nahi duzu?

T- Bai, bai, kontua duk hor daukagun arazoa konpontzeko espazio-estaziotik atera eta palanka bati eragin beharko diokela.

K- Nik egin behar dut?

T- Horiek dituk aginduak.

T- Tira, dena prest. Zer moduz?

K- Prest.

T- Bada, pasa espazioratze-gunera eta lotu hadi, e? Lotu al haiz?

K- Lotuta!

T- Bueno, Johnson, hirea izango duk ohorea, e? Lehen euskalduna izango haiz espazio irekian. Itxoin ezak pixka batean, Johnson. Pentsatu egin beharra zeukeagu.

K- Pentsatu zer?

K- Baina ze gertatzen da, Tasio?

T- Konturatu al haiz atera bezain pronto esango dituan lehen hitzak, espazioan euskaraz esandako lehendabiziko hitzak izango direla?

K- Palanka bat mugitzera noa, ez poesia-errezitaldi batera.

T- Johnson, hau serioa duk! Egunkari guztiek, eta *Berriak* seguru, azalean zera jarriko ditek: *Espazioan euskara entzun den lehendabiziko aldia*.

K- Jar dezatela nahi dutena!

T- Aber, zer esan behar duan ongi pentsatu behar diagu, Johnson. Iurretatik zuzenean erretransmitituko ditek une berezi hori-eta.

K- Eta zer esango dut? "Pauso txiki bat da gizakiarentzako, baina handia Euskal Herriarentzat".

T- Zer? Oraintxe bertan okurritu zaik, ezta?

K- Bada, bai. Ez dakit zergatik etorri zaizkidan hitz hauek ahora.

T- Ea, zerbait idatzi diat, aber, entzun, e?: "Jaungoikoaren aurrean apalik, espazioan zutunik...".

K- Hori esateko sotana jantzi beharko nuke!

T- Eta beste hau: "Aurrerantzean, izarrek ere euskaraz argituko gaituzte".

K- Sotana.

T- "Euskal Herria: antzinakoa eta jaio berria".

K- Sotana.

T- "Aberriaren mugak zabaldu...".

K- Sotana!

T- Dena prest?

K- Bai. Aurrera. Ireki atea!

T- Ateak irekita.

K- Pauso bat gehiago eta kanpoan naiz.

T- Segi, animo! Gora Euskadi!

K- Ostiaputa, arranopola! Ez diat ezer ikusten, Tasio! Banoa kanpora!

T- Gogora ezak, une historikoa duk!

T- Eta nire izena esan behar huan, e?

K- Jo, benetan, konturatu gabe egin dut. Eske... ez nuen pitorik ere ikusten!

T- Eskisabelek ere ez dik gurekin hitz egin nahi.

K- Ez da hainbesterako izan!

Euskadi Irratiko informazio-zerbitzuak, albisteak. Une historikoa bizi izan du gaur gure herrialdeak, Trebiñu II espazio-estazioko astronauta batek espazioan euskaraz esandako lehen hitzak entzun ahal izan ditugunean:

K- Joder, ez nuen hau espero, Tasio! Espazioa kilker baten uzkia baino ilunagoa da!

## Erantzunak

19.1.- 1-b / 2-b / 3-c

19.2.-

1.- Oso zaharkituak eta erlijio-kutsukoak iruditzen zaizkiolako. Ez datozelako bat ez garaiarekin, ez unearekin.

2.- Oso desegokia eta gustu txarrekoa iruditu zaiolako horrelako ekitaldi historiko batean botatzeko.

3.- Inork erabiltzen ez duen "arranopola" zaharkitua esanda "ostiaputa"ren atzetik.

19.3.- 1-C / 2-A / 3-E / 4-F / 5-B / 6-D